# TUTORETZA SAIOETARAKO PROPOSAMENA

| HELBURU ZEHATZAK | JARDUERAK | MATERIALAK | DENBORA | EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **1. Talde-gelaren kohesioa indartzea** | **Hasiera:** Lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. | | 5´ | • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute.<br>• Begirunez hartu ditu besteen iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe.<br>• Modu aktiboan hartu du parte proposatutako dinamiketan. |
| | Talde-kohesiorako zenbait dinamika egitea. | **Dinamikak:**<br>• Zooa.<br>• Itsu-gidaria.<br>• Zubia.<br>• Entzuten.<br>• Transmisio-katea.<br>*Gida didaktikoa* | 50´ | |
| | **Amaiera:** saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun. | | 5´ | |